

## ASTEKARIA ZABALTZEN DUEN ARGAZKI HANDIA

# Agentzia multinazionalen beharrik gabe



Itsaso Zubiria Etxeberria  
@itsasozubiria


Ez al zaitu sekula inpresionatu astekari-ko lehen orrietan agertzen den orri-biko argazkiren batek, irakurle? Ziur naiz baietz. Bada, gehiago inpresionatuko zaitu -agian jakingo duzu eta pentsatzen ariko zara ez dizudala ezer berririk kontatzen, baina seguruenik uste baino jende gutxiagok ezagutuko du datua- jakiteak argazkilari independenteek harapatutako irudiak direla guztiak; hau da, iturria ez dela betiko EFE edo Reuters bezalako agentzia multinazionala, irudi eta informazio salerosketarekin aberasten ari dena.

Aldizkaria berriren zenetik 48. alea izango da, eta berrogeita zortzi argazkiak independenteak izatea lortu da. Apustu sendoa egin da, noski. Kasu askotan ez da erraza izaten pil-pilean dagoen gaiaren argazki egokia bilatzea. Gainera, ARGIA eman zaion formatuan bi orriko irudiak berak du hartzen protagonismo guztia, eta ia testurik gabe argazkiak berak hitz egin behar du gaiaz; hori da helburua.

Euskal Herriko kontuez ari garenean errazagoa izaten da normalean argazki polit bat topatzea, grafikoki adierazgarria dena eta gaian sartzen lagunduko diguna. Gaia bera ondo kontrolatzeaz gain, gertuko argazkilari gehiago ere identifikatuta izan ohi ditugu eta ma-

teriala eskuragarriago egoten da. Konplikazioak nazioarteko kontuez hasten garenean suertatzen dira sarriago. Zaila izaten da askotan agentzien filtrotik pasa gabeko irudiak eskuratzea. Baina ez da ezinezkoa, eta ARGIA argazki hauekin egindako apustuarekin demostratzen ari zaigu posible dela beste bide batzuetatik grafikoki indartsuak diren euskarriak lortzea. Zenbait kasutan izerdi asko botata eskuratutako irudiak direla? Bai, noski. Errazagoa litzatekeela irudia agentzietatik jasotzea? Ziurrenik.

Baina bide berriak irekitzen ahalegindu eta bere fruituak ematen ikustea ederra da, ederra den bezala egiten ari garena kontatu eta plazaratzeko aukera izatea. ■



ARGIAren alde

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL)  
ABENDUAK 11,  
IGANDEA

Saio bakarra: 11:30ean

Sarrerak:

Aurretik 7 euro

Egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Lan  
berriaren  
aurkezpen  
emanaldia

Eskuratu zure sarrera:

☎ 943 37 15 45

sustapena@argia.eus

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak  
Usurbilgo Taldea

ARGIA